

Sin./Fdo.: MIGUEL ANGEL CASTILLA SAIZ 2023-09-07  
ESKARIAREN KUDEAKETA ATALEKO BURUA  
JEFE/A SECCIÓN DE GESTIÓN DE LA DEMANDA

Sin./Fdo.: JOSE PAREJO HERRERA 2023-09-07  
PLANGINTZA ZERBITZUKO BURUA  
JEFE/A DE SERVICIO DE PLANIFICACIÓN

Sin./Fdo.: FELIPE COBO SANCHEZ 2023-09-07  
BIDE-SAREA KUDEATZEKO ZUZENDARIORDEA  
SUBDIRECTOR/A DE GESTIÓN DE LA RED VIARIA

Sin./Fdo.: JON ERAIMUNDA LARREA ARRUTIA 2023-09-07  
BERRIKUNTZARAKO ETA BIDEEN KUDEAKETARAKO ZUZENDARITZA NAGUS.-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INNOVACIÓN Y GESTIÓN VIARIA

Sin./Fdo.: IMANOL PRADALES GIL - 2023-09-07  
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA  
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-09-14  
GZko 20.gaia onartuta - Aprobado, asunto 20) de OD

**ERABAKIA** “Ibaizabaleko bizikleta-bidea eraikitzeke proiektua. Tarteak: Erletxe - Boroa” behin-behineko onartzeko eta bizikleta-bideen araudiari begira jendurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea betetzeko.

#### AURREKARIAK

I.- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sustatzeko Saileko Eskaria Kudeatzeko Atalak sail honetako Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko Atal Juridiko Administratiboari bidali dio, onar dezan: “IBAIZABALEKO BIZIKLETA-BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA. TARTEA: ERLETXE - BOROA”.

II- Aldez aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, aztergaien zerrendako 23. gaiari buruzko erabakia hartu zuen, hau da, “Ibaizabaleko bizikleta-bidearen trazadura-proiektua. Tarteak: Erletxe-Boroa” behin-behineko onetsi zen, eta jendurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea egin zen bizikleta-bideen sektoreko araudiari begira, Bizkaiko Foruko Bizikleta Bideen ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren “Izapideak eta onespena” 22. artikulua eta lehenengo xedapen iragankorrak arautzen duenaren arabera.

**ACUERDO** de aprobación provisional del “Proyecto de Construcción de la Bicipista del Ibaizabal. Tramo: Erletxe – Boroa” y su sometimiento al trámite de información pública y audiencia a los efectos de la normativa sectorial de vías ciclistas.

#### ANTECEDENTES

I.- Por la Sección de Gestión de la Demanda del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial ha sido remitido a la Sección Jurídica Administrativa del Servicio de Servicios Generales de este Departamento para su aprobación el “PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE LA BICIPISTA DEL IBAIZABAL. TRAMO: ERLETXE – BOROA”.

II- Previamente, la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día 10 de mayo de 2022, adoptó el Acuerdo relativo al asunto nº 23 del orden del día, la aprobación provisional del “Proyecto de Trazado de la Bicipista del Ibaizabal. Tramo: Erletxe-Boroa”, y su sometimiento al trámite de información pública y audiencia a los efectos de la normativa sectorial de vías ciclistas, de acuerdo con lo que regula el art. 22 “Tramitación y aprobación” y la Disposición Transitoria Primera de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia.

Ingurumenaren arloko izapideei dagokienez,

En cuanto a la tramitación Ambiental, se inicia





Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatu ostean, 2022ko maiatzaren 2an proiektuaren ingurumen-ebaluazioa hasi zen, eta 2022ko abuztuaren 5ean Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren uztailaren 28ko 4687/2022 Foru Agindua jaso zen. Horren bidez, “Ibaizabal/Txorierriko bizikleta-bidearen trazadura-proiektua. Tarte: Boroa-Erletxe-Larrabetzu” proiektuaren gainean ingurumen-eraginaren txostena formulatzea ebatzi zen.

Jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea ikusi zen, eta aintzat hartu ziren Interbiak 2022ko uztailaren 14an egindako txosteneko zehaztapenak. Horiei jarraikiz, 1+800 eta 2+400 kilometropuntuen arteko proiektuaren eremuan trazadura aldatu behar zen, AP-8 errepideko lur-erazketako ezponden egonkortasunari modu negatiboan ez eragiteko.

Aldaketa Erletxeko poligonora ekialdetik sartzeko plataforma (AP-8 errepidean dagoen azpiko pasabidea) aprobetxatuz gauzatu nahi da. Ia ez da erabiltzen, eta Bilboko noranzkoan galtzadaren eskuineko ertzetik Gipuzkoako noranzkoan galtzadaren eskuineko ertzeraino bizikleta-bidearen trazadura aldatu ahal izango da. Puntu horretatik aurrera, bizikleta-bidea autobideko lubetaren gainean joango da, Easygasen gasolindegiraino horren eta N-634 errepidearen artean ahokatuta. Bertan jatorrizko trazadurarekin lotuko da.

Trazadura doitzeko okupatuko diren lursailak trazadura-proiektuko desjabetzeen poligono-sortan inskribatuta egoteagatik jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea bete arren, forujabetzako bideei dagokienez, Erletxeko industria-guneko bigarren mailako sarbideetan (AP-8 autobidearen azpiko

el 2 de mayo del 2022, con la solicitud a la Dirección General de Medio Ambiente de la Evaluación Ambiental del Proyecto, recibiendo el 5 de agosto del 2022 la Orden Foral 4687/2022, del 28 de julio, de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural por la que se resuelve formular el informe de impacto ambiental del “Proyecto de Trazado de la Bicipista del Ibaizabal/Txorierrri. Tramo Boroa-Erletxe-Larrabetzu”, tramo en el que se integra este proyecto.

A la vista del trámite de información pública y audiencia, se consideró que las determinaciones recogidas en el informe que Interbiak emitió el 14 de Julio de 2022, motivaban la modificación de trazado en el ámbito del proyecto comprendido entre los pks. 1+800 y 2+400, para así evitar afectar negativamente a la estabilidad de los taludes de desmonte de la AP-8.

Dicho cambio se pretende materializar aprovechando la plataforma del acceso este al Polígono de Erletxe (paso inferior existente en la AP-8), que apenas cuenta con uso, para variar el trazado de la bicipista desde la margen derecha de la calzada sentido Bilbao hasta la margen derecha de la calzada sentido Gipuzkoa. A partir de ese punto la bicipista discurrirá montada sobre el terraplén de la Autopista, quedando encajada entre ésta y la N-634 hasta la gasolinera de Easygas donde enlaza con el trazado original.

Si bien los terrenos ocupados con este ajuste de trazado se encontraban inscritos en la poligonal de expropiación recogida en el Proyecto de Trazado que fue sometido a información pública y audiencia, se entiende que se produce un cambio en la funcionalidad de los accesos secundarios del Polígono Industrial de Erletxe, que se realizan sobre un





pasabidea) funtzionaltasuna aldatutzat jotzen da, eta berrantolatuko da bizikleta-bideko erabiltzaile kalteberen bide-segurtasuna bermatzeko.

viario de propiedad foral (paso inferior de la autopista AP-8) y que se reordenarán para garantizar la seguridad vial de los usuarios vulnerables de la vía ciclista.

Jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapideak proposatzen du aldaketa horiek funtsezkotzat jotzea eta segurtasun juridikoak bultzatuta, dagoeneko "Ibaizabaleko bizikleta bidea eraikitze proiektua. Tarte: Erletxe-Boroa" behin-behinekoz onesteko fasean beharrezkoa dela jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapide berria. Izan ere, orain espediente hau egoera horretan dago.

El trámite de información pública y audiencia propone que esos cambios pudieran considerarse de carácter sustancial, y que por seguridad jurídica sería necesario proceder de nuevo al trámite de información pública y audiencia ya en la fase de aprobación provisional del Proyecto Constructivo de la Bicipista del Ibaizabal. Tramo: Erletxe-Boroa, situación en la que se encuentra en la actualidad este expediente.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, 2023ko uztailaren 18an egindako bilkuran, aztergaien zerrendako 28. gaiari dagokionez, jendaurreko informazioaren eta eragindako toki-erakundeei entzuteko izapidea ebatzi zuen, eta behin betiko onartu zuen "Ibaizabaleko bizikleta-bidearen trazadura-proiektua. Tarte: Erletxe-Boroa" proiektua.

El Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en sesión celebrada el día 18 de julio de 2023, en el asunto nº 28 del orden del día, resolvió el trámite de Información pública y audiencia de las Corporaciones Locales afectadas y aprobó definitivamente el "Proyecto de Trazado de la Bicipista del Ibaizabal. Tramo: Erletxe-Boroa".

Igorritako txostenean, honako hau adierazten da:

En el Informe remitido, se indica lo siguiente:

**PROIEKTUAREN XEDEA.-** Xedea da eraikuntza-proiektuaren mailan trafiko motordunetik bereizita bizikletetarako eta oinezkoentzako ibilbidea egikartzeko obrak definitzea Galdakao udalerrira lotze aldera. Erletxen hasiko da, industria-gunearen ondoan, eta Kortederra auzotik pasa ondoren, Boroako industria-guneara amaituko da, dagoeneko Amorebieta-Etxano udalerrira.

**OBJETO DEL PROYECTO.-** El objeto es la definición a nivel de Proyecto de Construcción, de las obras necesarias para la ejecución de un itinerario ciclista y peatonal, segregado del tráfico motorizado, que enlace el término municipal de Galdakao comenzando en Erletxe junto al Polígono Industrial y pasando por el barrio Kortederra, hasta finalizar en el Polígono Industrial de Boroa, ya en el término municipal de Amorebieta-Etxano.

Proiektu honek bizikleta-bidezidorraren tipologia du, hau da, bizikletetarako eta oinezkoentzako bidea da. Trafiko

La tipología de vía ciclista del presente proyecto es la senda ciclable, esto es, una vía para ciclos y peatones, segregada del tráfico





motordunetik bereizita dago, eta espazio irekietatik, parkeetatik, lorategietatik edo basoetatik doa. Kasu honetan, sekzioak argi eta garbi bereizitako bi banda txertatzen dituenetz (seinaleak, zorua bereiztea, eta abar) bizikletek eta oinezkoek erabiltzeko, partekatutako bizikleta-bidezidor bat izango litzateke.

Tartea Ibaizabal Bilbo-Zaldibar ardatzeko L1 Enbor Arteria Nagusiko linearen barruan dago, bizikleta-bideen sare objektuaren barnean. Sarea berriki onetsi du "5/2023 Foru Arauak, martxoaren 22koak, Bizkaiko Bizikleta Bideen Arlokako Lurralde Plana (BBBALP) onesten duenak".

Enbor-ardatz horrek 42,7 km-ko luzera du guztira, eta 138,96 km-ko bigarren mailako sare bat du lotuta (Nerbioi - Ibaizabal - Arratia - Durangaldea bizikleta-eremua).

Proiektuaren xede-esparrua zehazki Erletxe - Boroa tartean kokatzen da.

Enbor-sare nagusi horri atxikitako tarteen zati garrantzitsua errepideak eta/edo bide-igarobide handiak erreferentziatzen hartzen dituzten konponbideekin ebazten da. Agiri honen xede den L1 linearen tartean (tartea: Erletxe-Boroa) bi bide-azpiegitura aipagarri daude: nagusiki AP8 autobidea eta N-634 errepidea.

Ildo horri eutsiz, honako hauek aurrera eramateko asmoa dago:

- Tarteetan orduko 25 km-ko merkataritzako bizikleta-abiadura bermatzeko trazaduraren, sekzioaren eta erabileren gaineko konponbidea ziurtatzea.
- Lurzoruen kudeaketa erraztea eta

motorizado, y discurre por espacios abiertos, parques, jardines o bosques. En este caso, puesto que la sección incorpora dos bandas claramente diferenciadas (señalización, diferenciación de firme, etc.) para uso ciclista y peatonal, se trataría de una senda ciclable compartida.

El tramo forma parte de la Línea Arterial Principal Troncal L1 Eje del Ibaizabal Bilbao-Zaldibar, incluida en la Red Objeto de Vías Ciclistas (ROP) de la "Norma Foral 5/2023, de 22 de marzo, de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia (PTSVCB)".

Este eje troncal cuenta con una longitud total de 42,7 km del que cuelga una red secundaria (ámbito ciclable del Nerbioi - Ibaizabal - Arratia - Durangaldea) de 138,96 km.

El ámbito objeto del proyecto se localiza concretamente dentro del tramo Erletxe - Boroa.

El encuadre de una parte importante de los tramos adscritos a esa red troncal principal se resuelve mediante soluciones referenciadas (o asociadas) a carreteras y/o grandes corredores viarios. En el caso del tramo de la Línea L1 (tramo: Erletxe-Boroa) objeto del presente documento son dos las infraestructuras viarias relevantes, la AP-8, principalmente y la N-634.

Con ello, se pretende:

- Asegurar una solución de trazado, sección y usos que permita garantizar una velocidad ciclista comercial por dichos tramos en torno a los 25 km/h.
- Facilitar la gestión de los suelos y





baimenetan, desjabetzeetan... esku hartzeko orduan nahasitako eragileen kopurua murriztea.

- Mugikortasunaren eskaera erakartzen duten gune garrantzitsuekin konektagarritasuna sustatzea, hain zuzen ere, bide-azpiegitura horien ondoan kokatzen baitira, beraz, bizikletarako zenbait tarte lotuko lirateke.
- Bizikleta-bidea atxikitzen zaion bide-azpiegitura handiaren eragina orekatzeko neurria sartzea, gertu edo zuzeneko eraginpeko eremuan azpiegitura berria eransten baita, bidezkoa bada, bizikletaren antzeko garraio-modu osasungarria eta jasangarria sustatze aldera.
- Autoarekin lehian, bizikleta-bidea mugikortasunerako azpiegitura gisa ikusten laguntzea; hala, autoen presentzia gutxitu eta modu jasangarriagoaren aldeko erabilerak lortu nahi dira.

Jarduketa bi noranzkoko bizikleta-bide baten bidez ebazten da, eta oinezkoentzako trafiko erantsia izango du. Ondorioz, bizikleten trafikorako eta oinezkoen trafikorako plataformaren eremu zehatzak mugatuko dira.

Zirkulazio-eremuak guztira 6,0 metroko zabalera izango du, 4,0 metro beren-beregi bizikletetarako eta 2,0 metro oinezkoentzat.

Horrela, ibilgailu motordunentzako ordezkotako ibilbide bat sortzen da udalerrien arteko distantzia ertain-luzeko ibilbideetarako. Ibilbide horren helburua ez da soilik kirol-aisialdirako alternatiba izatea, baizik eta

reducir el número de agentes afectados e intervinientes en autorizaciones, expropiaciones...

- Favorecer la conectividad con centros importantes de atracción de demanda de movilidad, por cuanto que los mismos suelen emplazarse, precisamente, junto a dichas infraestructuras viarias a las que se asociarían algunos tramos ciclables.
- Incluir una medida de compensación del impacto de la gran infraestructura viaria a la que se referencia la vía ciclista, al alojar en su proximidad o ámbito de influencia directa una nueva infraestructura para la promoción, en este caso, de un modo saludable y sostenible como la bicicleta.
- Ayudar a visualizar la vía ciclista como una infraestructura para la movilidad en competencia con el coche al que se pretende restar presencia y usos en favor de los modos más sostenibles.

La actuación se resuelve con una senda ciclable de carácter bidireccional con tráfico anexo de peatones, que incluye la delimitación específica de las zonas de plataforma destinadas a tráfico ciclista y a tráfico peatonal.

La anchura total de la zona de circulación es de 6,0 metros, siendo 4,0 metros exclusivos para ciclistas y 2,0 metros para viandantes.

Se genera así un itinerario alternativo a los motorizados para los recorridos de corta-media distancia entre municipios, que no pretende ser sólo una alternativa de ocio deportivo, sino una alternativa real para los





udalerrri horien arteko edozein motatako joan-etorrietarako aukera erreala izatea, hiri-mugikortasun jasangarria sustatuz, Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialean oinarritutako Bizikleta-mugikortasunaren Estrategiaren baitan. Hori, era berean, funtsezko tresna gisa konfiguratzeko da mugikortasun-modu aktiboen ekarpenean 2050 Euskal Agentzian ezarritako karbonoaren neutraltasun-helburuan, bat etorrituz EBaren eta Parisiko Akordioaren esparruan ezarritako helburuekin. Horiei esker, gutxienez, % 40 murriztuko dira 2030erako BEG-emisioak eta % 80 2050erako (2005eko datuekin alderatuta)".

Azpiegitura berriak Galdakaoko eta Amorebietako nukleoaren artean oinez edo bizikletaz sartzea errazten du. Horrek, gainera, esparruan garraio publiko jasangarriko sareekin (aldirietako trenak eta autobus-lineak...) lotzea ahalbidetzen du.

Horrela, ingurumena errespetatzen duen hiriko garraio kolektiboa bultzatzen da, CO2 emisioak murriztuko dituen eko-garraioa, energia aurrezten lagunduko duena, petrolioarekiko mendekotasuna murriztuko duena, eta mugikortasun ez hain motorizatua sustatuko duena, oinezkoen joan-etorriak eta bizikleta bidezko garraioa bultzatuz eta garraio publikoa gehiago erabiltzea sustatuz. Halaber, landa-eremuak hiri-eremu nagusiekin lotzea indartzen da, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide eksklusiboen bidez, haien segurtasuna bermatzeko, eta, garraio publiko iraunkorreko sareekin batera, lurralde zabal bat eskura jartzeko, ibilgailu pribatura jo beharrik gabe.

Erletxe eta Boroaren artean Durangaldeko bizikleta-bidearen trazadurak guztira 4,5 kilometroko luzera du bizikleta eta oinezkoentzat. Oso luzea denez, eremuen

desplazamientos de cualquier tipo entre estos municipios, fomentando la movilidad urbana sostenible, enmarcada en la Estrategia de la movilidad ciclista fundamentada en el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas, quien a su vez se configura como un instrumento clave en la aportación de los modos activos de movilidad en el objetivo de neutralidad del carbono establecidos en la Agencia Vasca 2050, en sintonía con los objetivos establecidos en el marco de la UE y del Acuerdo de París. Y que conllevan, al menos, la reducción de un 40% de las emisiones GEI para 2030 y de un 80% para el 2050 (en relación con los niveles de 2005)".

La nueva infraestructura favorece el acceso a pie o en bici entre los núcleos de Galdakao y Amorebieta. Esto permite además la conexión con las redes de transporte público sostenible en el ámbito (trenes de cercanías y líneas de autobuses...).

Se favorece así el transporte urbano colectivo y respetuoso con el Medio Ambiente, el ecotransporte que reducirá las emisiones de CO2, favorecerá el ahorro de energía, reducirá la dependencia del petróleo, y fomentará una movilidad menos motorizada, promoviendo los desplazamientos a pie y el transporte en bicicleta a la vez que fomentando un mayor uso del transporte público. Se potencia así mismo la conexión de los ámbitos rurales con las principales zonas urbanas a través de itinerarios exclusivos para peatones y ciclistas que garanticen la seguridad de estos y que, combinados con las redes de transporte público sostenible, pongan a su alcance un amplio territorio sin necesidad de recurrir al vehículo privado.

El trazado de la Bicipista de Durangaldea entre Erletxe y Boroa comprende una longitud total de itinerario ciclopeatonal de 4,5 kilómetros. Debido a su larga extensión, se





arabera azpitarteak zehazten dira, nahiz eta guztia trazadura bakarra izan.

- Erletxeko poligonoa: trazaduraren hasierako tartea da, 0+956,113 kilometro-puntutik 1+820 kilometro-puntura.
- Erletxe-Kortederra: trazaduraren bigarren eremua 1+820 kilometro-puntutik 2+820 kilometro-puntura doa.
- Kortederra-Boroa: tarte honek 2+820 kilometro-puntutik 4+180 kilometro-puntura barneratzen ditu eta honako zati hau sartzen da:
  - Kortederra lotunea (25 ardatza).
- Boroa poligonoa: eremu hau 4+180 kilometro-puntutik 5+485,040 kilometro-puntura doa.

detallan los correspondientes subtramos por zonas, constituyendo todo él un trazado único.

- Polígono de Erletxe: constituye el tramo inicial del trazado desde el pk 0+956,113 al pk 1+820.
- Erletxe-Kortederra: la segunda zona del trazado está comprendida entre los pk 1+820 y pk 2+820.
- Kortederra-Boroa: este tramo incluye del pk 2+820 al pk 4+180, y en esta zona se incluye:
  - Conexión Kortederra (eje 25).
- Polígono Boroa: esta zona discurre entre el pk 4+180 y el pk 5+485,040.

**EGIKARITZEKO AURREKONTUA ETA EPEA.-** Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa kanpo) HAMABI MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMOKOA (12.538.539,28 €) da eta BEZa (% 21) barne HAMABOST MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMORA (15.171.632,53 €) iristen da.

**PRESUPUESTO Y PLAZO DE EJECUCIÓN.-** El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de DOCE MILLONES QUINIENTOS TREINTA Y OCHO MIL QUINIENTOS TREINTA Y NUEVE EUROS CON VEINTIOCHO CÉNTIMOS (12.538.539,28 €) y con IVA (21%) a la cantidad de QUINCE MILLONES CIENTO SETENTA Y UN MIL SEISCIENTOS TREINTA Y DOS EUROS CON CINCUENTA Y TRES CÉNTIMOS (15.171.632,53 €).

Obra egikaritzeko aurreikusitako epea HOGEI (20) hilabetekoa da.

El plazo estimado para la ejecución es de VEINTE (20) meses.

**PROIEKTUAREN IKUSKAPEN-SUPERVISIÓN DEL PROYECTO.-** De





**TXOSTENA.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 235. artikulua araber, proiektuak ikuskapen-txostena izan du, obrek beste obra batzuen egonkortasunari, segurtasunari edo hermetikotasunari eragiten baitizkiete.

**INGURUMENEN ERAGINAREN GAINEN EBALUAZIOA.-** Zerbitzu sustatzaileen txostenean adierazitakoaren araber, eraikuntza-proiektuko jarduketek, Erkidegoko eta Estatuko araudiak xedatzen duen bezala (Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea), ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete behar dute, eta, gutxienez, 21/2013 Legean garatutako informazioa emango da.

Ildo horri eutsiz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailean ingurumen-ebaluazioari buruzko espedientea izapidetu da.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 2022ko uztailaren 28ko 4687/2022 Foru Aginduak ingurumen-eraginari buruzko txostena formulatzea erabaki du honako proiektu honen gainean: "Ibaizabal/Txorierriko bizikleta-bidearen trazadura-proiektua. Tarte: Boroa-Erletxe-Larrabetzu". Hona hemen txostenaren ondorioa: proiektuak ez du ondorio kaltegarri nabarmenik ingurumenean, baldin eta ingurumen-eraginari buruzko txosten honetan jasotako ingurumen-baldintzak eta prebentzio-neurriak betetzen baditu. Beraz, ez zaio ingurumen-eraginaren ebaluazio arruntik egin behar.

acuerdo con el artículo 235 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Proyecto ha sido sometido a Informe de Supervisión, por tratarse de obras que afectan a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de las obras.

**EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL.-** Según se indica en el Informe del servicio promotor, las actuaciones contempladas en el Proyecto de Construcción, tal y como establece en la normativa autonómica y estatal, Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi este proyecto debería someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada y que contendrá, como mínimo, la información en los términos desarrollados en la Ley 21/2013.

En ese sentido, se ha procedido a la tramitación del citado expediente de evaluación ambiental con el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

La Orden Foral 4687/2022, de 28 de julio de 2022, de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural ha resuelto formular el informe de impacto ambiental del "Proyecto de Trazado de la Bicipista del Ibaizabal/Txorierrri, Tramo Boroa-Erletxe-Larrabetzu", concluyendo que el Proyecto que nos ocupa no tiene efectos adversos significativos sobre el medio ambiente, siempre que el proyecto cumpla con las condiciones ambientales y medidas preventivas incluidas en este informe de Impacto Ambiental y, por tanto, no debe someterse a una evaluación de impacto ambiental ordinaria.







**Lehenengoa.- Aplikatzekoa den araudia eta bizikleta-bidearen sailkapena.-** Eraikuntza-proiektu hau, dituen ezaugarriengatik, foruko bizikleta-bidea da, Bizkaiko Foruko Bizikleta-bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 3. artikuluan “Foruko bizikleta-bideen definizioa” eta 3. eranskinean “Foruko bizikleta-bideen definizioa eta bizikleta-bideen tipifikazioa” arauturikoa ikusita.

Zehazki, bizikleta-bidezidorra da, hau da, bizikletetarako eta oinezkoentzako bidea da. Trafiko motordunetik bereizita dago, eta espazio irekietatik, parkeetatik, lorategietatik edo basoetatik doa. Kasu honetan, sekzioak argi eta garbi bereizitako bi banda txertatzen dituen (seinaleak, zorua bereiztea, eta abar) bizikletek eta oinezkoek erabiltzeko, partekatutako bizikleta-bidezidor bat izango litzateke.

Jarduketa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotako Bizikleta Bide Berrien 1a) motako obren sailkapenaren barruan sartzen da.

Aurrekoaren arabera, Bizkaiko Foru Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren eta Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duen martxoaren 22ko 5/2023 Foru Arauaren araututakoa aplikatu behar da.

**Bigarrena.- Izapidetzea. Behin-behineko onespina eta informazio publikoa, eta entzunaldia.-** Proiektu honetako tartea Ibaizabal Bilbo-Zaldibar ardatzeko L1 Enbor Arteria Nagusiko linearen barruan dago, bizikleta-bideen sare objektuaren barnean. Sarea berriki onetsi du 5/2023 Foru Arauak, martxoaren 22koak, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko

**Primero. - Normativa de aplicación y clasificación de vía ciclista** El presente Proyecto de Construcción, por sus características, se trata de una vía ciclista de carácter foral a la vista de lo regulado en el artículo 3 “Definición de las vías ciclistas forales” y Anexo 3 “Tipificación de las vías de circulación en bicicleta y ámbito de aplicación de la norma” de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

Concretamente, se trata de una senda ciclable, esto es, vía para ciclos y peatones, segregada del tráfico motorizado y que discurre por espacios abiertos, parques, jardines o bosques. En este caso, puesto que la sección incorpora dos bandas claramente diferenciadas (señalización, diferenciación de firme, etc.) para uso ciclista y peatonal, se trataría de una senda ciclable compartida.

La presente actuación se engloba dentro de la clasificación de obras tipo “1a) Nuevas Vías Ciclistas” recogida en el art. 20 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia.

En virtud de lo anterior, resulta de aplicación lo regulado en la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia y en la Norma Foral 5/2023, de 22 de marzo, de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia.

**Segundo.- Tramitación. Aprobación provisional e información pública y audiencia.-** El tramo integrado en este proyecto forma parte de la Línea Arterial Principal Troncal L1 Eje del Ibaizabal Bilbao-Zaldibar, incluida en la Red Objeto de Vías Ciclistas (ROP) de la Norma Foral 5/2023, de 22 de marzo, de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia.





onesten duenak.

Jarduketa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotako Bizikleta Bide Berrien 1a) motako obren sailkapenaren barruan sartzen da.

Agindu horretan adierazitakoa oinarri hartuta, 22. artikuluan araututakoari dagokionez, 20. artikuluko 1a) multzoko bizikleta-bideen trazadura- eta/edo eraikuntza-proiektuak gauzatzea bideratu ahal izango da, 30 egun balioduneko jendaurreko izapidearekin eta toki-korporazioei bi hilabeteko entzunaldia emanez.

Lehen aipatutakoaren ildotik, aurretiazko trazadura-prozedurak dagoeneko izan zuen toki erakundeentzako jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea. Baina alegazio bat dela bide, trazadura aldatu behar da eta, ondorioz, prozesua errepikatu behar da, funtsezkotzat hartzeagatik.

Aurrekoaren harira, izapide bera egin beharko da Galdakaoko eta Amorebieta-Etxanoko Udalen, Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Interbiak erakundearen aurrean.

**Hirugarrena.- Organo eskuduna.-** Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena dauka Bizkaiko errepideak eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, artatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.34. artikuluan aitortu eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikulua eta Bizkaiko Bizikleta Bideei buruzko ekainaren

La presente actuación se engloba dentro de la clasificación de obras tipo “1a) Nuevas Vías Ciclistas” recogida en el art. 20 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia.

En base a lo indicado en el citado precepto, en relación con lo regulado en el artículo 22, se podrá viabilizar la ejecución de los proyectos de trazado y/o construcción de vías ciclistas del grupo 1a) del artículo 20, con un trámite de información pública de 30 días hábiles y audiencia por un periodo de dos meses a las corporaciones locales.

Como se ha apuntado anteriormente el Proyecto de Trazado previo ya fue sometido al trámite de información pública y audiencia a las corporaciones locales, si bien motivado por una alegación es preciso modificar su trazado, situación que implica la repetición de dicho proceso por considerarse de carácter sustancial.

En este sentido se elevará este trámite a los Ayuntamientos de Galdakao y Amorebieta-Etxano, a la Agencia Vasca del Agua (URA) y a Interbiak.

**Tercero.- Órgano competente.-** La Diputación Foral de Bizkaia es competente para la planificación, proyección, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras y caminos de Bizkaia, según se reconoce en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía de Gernika, el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así como el artículo 1 y





27ko 10/2014 Foru Arauaren 1. artikulua eta horrekin bat datozenek xedatu bezala.

Ebazteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du, Aurrekontuen abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen laugarren xedapen gehigarrian eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 1eko 14/2022 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua) ezarritakoaren arabera; azken Dekretu horrek aipatutako Foru Araua garatzen du. Hala, eskumenduna da aldi baterako onesteko eta informazio publikoko eta entzunaldirako izapidetzeak hastea agintzeko.

Horregatik guztiagatik, azpian sinatzen duenak erabaki proposamen hau zuri aurkezteko ohorea du, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilura bidali dadin:

## FORU ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Behin-behinekoz onestea "IBAIZABALEKO BIZIKLETA-BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA. TARTEA: ERLETXE - BOROA". Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa kanpo) HAMABI MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMOKOA (12.538.539,28 €) da eta BEZa (% 21) barne HAMABOST MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMORA (15.171.632,53 €) iristen da.

concordantes de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

La competencia para resolver corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 14/2022, de 1 de marzo, por el que se modifica el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre), que desarrolla la citada Norma Foral, por lo que se considera el competente para aprobarlo provisionalmente y ordenar la apertura de los tramites de información pública y audiencia.

Por todo ello, el que abajo suscribe tienen el honor de someter a V.I., para su posterior elevación al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de:

## ACUERDO FORAL

**Primero.-** Aprobar provisionalmente el "PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE LA BICIPISTA DEL IBAIZABAL. TRAMO: ERLETXE - BOROA", el presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad DOCE MILLONES QUINIENTOS TREINTA Y OCHO MIL QUINIENTOS TREINTA Y NUEVE EUROS CON VEINTIOCHO CÉNTIMOS (12.538.539,28 €) y con IVA (21%) a la cantidad de QUINCE MILLONES CIENTO SETENTA Y UN MIL SEISCIENTOS TREINTA Y DOS EUROS CON CINCUENTA Y TRES CÉNTIMOS (15.171.632,53 €). así como un plazo estimado de ejecución de VEINTE (20) meses. Todo ello con





Egikaritzeko HOGEI (20) hilabete aurrez ikusten dira. Hori guztia, espedientean jasota dauden eta onartzeko bidali diren proiektuan eta txostenean oinarrituta.

**Bigarrena.-** Jendaurreko informazioaren eta toki-korporazioen eta erakunde publikoen entzunaldiaren izapidea has dadin agintzea, Bizkaiko Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**Hirugarrena.-** Proiektu hori jendaurrean erakustea hogeita hamar (30) egun baliouduneko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondoko lehenengo egun baliodunetik zenbatuta, bizikleta-bidea interes orokorrekotzat jotzea justifikatzen duten inguruabarrei dagokienez eta bere diseinuaren planteamendu orokorrari dagokionez egokitzat jotako alegazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

**Laugarrena.-** Aurretik adierazitako ondorioetarako, espedientea aztergai jarriko da Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulegoetan (Ibañez de Bilbao, 20); bertan aztertu ahalko da eta erregistroan aurkeztu ahal izango dira bidezko alegazioak eta oharrak. Hala ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Era berean, 39/2015 Legearen 83.2 artikuluan xedatutakoa betez, Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko "jendaurreko informazio fasean dauden planak eta proiektuak" atalean kontsultatu ahal izango da, eta, halaber, alegazioak webgune

fundamento en el Proyecto e Informe remitido para aprobación, que constan en el expediente.

**Segundo.-** Ordenar el inicio del trámite de información pública y audiencia a las corporaciones locales y a las entidades públicas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

**Tercero.-** Someter el citado Proyecto al trámite de información pública por un plazo de treinta (30) días hábiles a contar desde el primer día hábil siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, a fin de que en dicho plazo puedan presentarse cuantas alegaciones y observaciones se estimen oportunas sobre las circunstancias que justifiquen la declaración de interés general de la vía ciclista y sobre la concepción global de su construcción.

**Cuarto.-** A los efectos anteriores poner de manifiesto el expediente en las dependencias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, sito en la c/ Ibañez de Bilbao nº 20, donde podrá ser examinado, pudiendo presentarse las oportunas alegaciones y observaciones en el registro de dicha dependencia, sin perjuicio de la posibilidad de presentar las mismas en cualquiera de los lugares permitidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 83.2 de la Ley 39/2015, podrá consultarse en la sección de "Planes y proyectos en fase de Información Pública" de la web de la Diputación Foral de Bizkaia e, igualmente, se podrán presentar las





horretan adierazitako bulego birtualaren bidez aurkeztu ahal izango dira.

**Bosgarrena.-** Dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jartzea.

**Seigarrena.-** Aztergai dugun proiektua Galdakaoko eta Amorebieta-Etxanoko Udalei, Interbiaki eta Uraren Euskal Agentziari bidaltzea, entzunaldiaren izapidea egin dezaten, udal eta erakunde horiek bi hilabeteko epean azter dezaten, proiektuarekin ados dauden ala ez jakinaraz dezaten eta egoki iriztitako alegazioak edo iradokizunak egin ditzaten. Epe hori igaro ondoren horri buruzko oharrik ez badago, proposatutakoarekin ados daudela ulertuko da. Hori guztia, ebazpen honen oinarrietan adierazitako arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

**Zazpigarrena.-** Aurreko erabakiak Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiari (Bide Sarea Kudeatzeko Zuzendariordetza) komunikatzea, baita Galdakaoko eta Amorebieta-Etxanoko Udalei, Interbiaki eta Uraren Euskal Agentziari jakinaraztea ere.

Edonola ere, zeuk ebatziko duzu

alegaciones a través de la oficina virtual señalada en la citada web.

**Quinto.-** Insertar el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**Sexto.-** Remitir un ejemplar del Proyecto que nos ocupa a los ayuntamientos afectados de Galdakao y Amorebieta—Etxano, a Interbiak y a la Agencia Vasca del Agua al objeto de someterlo al trámite de audiencia, para que los citados ayuntamientos y organismos lo examinen en el plazo de dos meses, e informen sobre su conformidad o disconformidad con el Proyecto y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo sin que se informe a este respecto se entenderá que están conformes con la propuesta formulada. Todo ello, de conformidad con lo dispuesto en la normativa mencionada en los fundamentos de la presente resolución.

**Séptimo.-** Comunicar los acuerdos anteriores a la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria (Subdirección de Gestión de la Red Viaria), así como notificar a los Ayuntamientos de Galdakao y Amorebieta-Etxano, a Interbiak y a la Agencia Vasca del Agua.

V.I., no obstante, resolverá

Eskariaren Kudeaketa ataleko burua / Jefe de Sección de Gestión de la Demanda. MIGUEL ANGEL CASTILLA SAIZ

Plangintza Zerbitzuko burua / Jefe del Servicio de Planificación. JOSE PAREJO HERRERA

Bide-Sarea Kudeatzeko Zuzendariordea / Subdirector de Gestión de la Red Viaria. FELIPE COBO SANCHEZ

Berrikuntzarako eta bideen kudeatarako zuzendari Nagusia / Director general de Innovación y Gestión Viaria. JON LARREA ARRUTIA

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**





Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B9LB-WC2C-DU9V-CH7M  
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

